

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*131/2013 FORU AGINDUA, otsailaren 7koa, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzen duena.*

Ekainaren 29ko 2/2012 Legeak, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, Europar Batasuneko araudira egokitu du zerga berezien erregulazioa, eta horren ondorioz, Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga Hidrokarburoen gaineko Zergan geratu da integratuta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Horrek hidrokarburoen gaineko zerga autoliquidatzeko ereduak aldatzera behartzen gaitu.

Otsailaren 16ko 113/2009 Foru Aginduaren bidez zerga bereziak autoliquidatzeko hainbat eredu onartu ziren, eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta eguneratu ziren. Onartutako ereduaren artean Hidrokarburoen gaineko Zerga autoliquidatzeko 564 ereduak zegoen.

Hidrokarburoen gaineko Zergaren egitura berria dela-eta (hiru zerga tasa ditu, estatukoa, berezia eta autonomikoa), eta berrigorlearen figura sortu denez, zerga autoliquidatzeko 564 ereduak egokitu beharra dago. Horrela, eredu hori 581 eredu izatera pasatzen da, baina 564 ereduaren erreferentzia mantentzen da likidatuta dauden zergaldietako aitortpen osagarri edo zuzentzaileak aurkeztea gerta daitekeelako. Orobat, 582 eredu berria sortzen da, berrigorle direnek erabil dezaten.

Hori dela-eta, aipatu den 113/2009 Foru Agindua aldatu beharra dago esandako eredu berriak onartu eta jasotzeko.

Horiek horrela, honako hau,

## XEDATZEN DUT

*Artikulu bakarra. Zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta egunean jartzen dituen otsailaren 16ko 113/2009 Foru Agindua aldatzea.*

*Lehen:* Xedapen hauek aldatzen dira otsailaren 16ko 113/2009 Foru Aginduan, zerga berezien zenbait eredu onartu eta zerga horien kudeaketan bete beharreko arau batzuk bateratu eta eguneratzeari buruzkoan:

*Bat.* 1. artikulua 1. eta 4. apartatuak honela berridazten dira:

«1. Onarturik geratzen dira fabrikazio zerga berezien zerga zorra zehaztu eta ordaintzeko erabiliko diren autoliquidazio ereduak, jarraian aipatzen direnak. Ereduak bina ale dituzte, Administrazioarena eta interesatuarena:

a) 560 ereduak: Elektrizitatearen gaineko zerga. Autoliquidazioa. I. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

b) 561 ereduak: Garagardoaren gaineko zerga. Autoliquidazioa. II. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

c) 562 ereduak: Tarteko produktuen gaineko zerga. Autoliquidazioa. III. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*ORDEN FORAL 131/2013, de 7 de febrero, por la que se modifica la Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, por la que se aprueban determinados modelos y se refunden y actualizan diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales.*

La integración, con efectos 1 de enero 2013, del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos en el Impuesto sobre Hidrocarburos, como consecuencia de la adecuación de la regulación de los Impuestos Especiales a la normativa comunitaria, llevada a cabo por la Ley 2/2012, de 29 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para 2012, obligan a modificar los modelos de autoliquidación del Impuesto sobre Hidrocarburos.

La Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, aprueba determinados modelos y refunde y actualiza diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales, entre los que se encuentra el modelo de autoliquidación 564 de Impuesto sobre Hidrocarburos.

La nueva estructura impositiva del Impuesto sobre Hidrocarburos, con tres tipos impositivos (estatal, especial y autonómico) y la introducción de la figura del reexpedidor, obligan a modificar el modelo de autoliquidación 564, que pasa a ser el número 581 (la referencia al modelo 564 se mantiene, dada la posibilidad de presentar declaraciones complementarias o rectificativas sobre períodos ya liquidados) y originan la creación de un modelo nuevo (modelo 582), a efectos de su utilización por quienes tengan la condición de reexpedidores.

Ello obliga a modificar la Orden Foral 113/2009 citada para aprobar e incluir los nuevos modelos mencionados.

En su virtud,

## DISPONGO

*Artículo único. Modificación de la Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, por la que se aprueban determinados modelos y se refunden y actualizan diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales.*

*Primero:* Se modifican los siguientes preceptos de la Orden Foral 113/2009, de 16 de febrero, por la que se aprueban determinados modelos y se refunden y actualizan diversas normas de gestión en relación con los Impuestos Especiales:

*Uno.* Los apartados 1 y 4 del artículo 1 quedan redactados en los siguientes términos:

«1. Se aprueban los siguientes modelos de autoliquidación para la determinación e ingreso de la deuda tributaria de los impuestos especiales de fabricación, que constarán de dos ejemplares, uno para la Administración y otro para el interesado:

a) Modelo 560: Impuesto sobre la Electricidad. Autoliquidación, que se adjunta como Anexo I a la presente Orden Foral.

b) Modelo 561: Impuesto sobre la Cerveza. Autoliquidación, que se adjunta como Anexo II a la presente Orden Foral.

c) Modelo 562: Impuesto sobre Productos Intermedios. Autoliquidación, que se adjunta como Anexo III a la presente Orden Foral.

d) 563 eredia: Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga. Autoliquidazioa. IV. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

e) 564 eredia: Hidrokarburoen gaineko zerga. Autoliquidazioa. V. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan. 2013ko ekitaldia hasi aurreko likidazio-aldiei dagokienez erabiliko da.

f) 581 eredia: Hidrokarburoen gaineko zerga. Autoliquidazioa. V bis eranskin gisa ageri da foru agindu honetan. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako likidazio-aldiei dagokienez erabiliko da.

g) 566 eredia: Tabako laboreen gaineko zerga. Autoliquidazioa. VI. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

h) KUBA eredia. Alkoholaren eta Edari Deribatuen, Tabako Laboreen eta Elektrizitatearen gaineko Zerga Bereziak. Kuota bateratuak banakatzeko aitorpena. VII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

i) KBBA eredia. Hidrokarburoen gaineko zerga. Kuota bateratuak banakatzeko aitorpena. VIII. eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

j) 582 eredia: Hidrokarburoen gaineko Zerga: Produktuak beste lurralde historiko batera edo beste autonomia erkidego batera berrigortzeagatik egin beharreko erregularizazioa. VIII bis eranskin gisa ageri da foru agindu honetan.

Fabrikazio zerga berezien subjektu pasiboek eta zerga horiek ordaintzera behartuta dauden gainerako zergapekoek aurkeztu behar dituzte eredu hauek, bi kasutan izan ezik: Inportazioak egiten dituztenean eta martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 39/1992 Legea egokitzen duenak (20/1998 Foru Dekretua aurrerantzean) 20.6 artikuluan definitutako artisauek destilatzaileak direnean. 582 eredia berrigorle direnek baino ez dute aurkeztu behar. Izaera hori izango dute zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 1.13 artikuluan jasotako definizioan sartzen direnean.

Oro har, fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuak jasotzen dituen establezimendu edo harrera leku bakoitzak aurkeztu behar ditu ereduak eta kuota likidoak aldi berean ordaindu, likidatzen den epealdian egindako eragiketengatik.

Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuak aurrez baimendu badie, enpresek jardueren aitorpen-likidazio bakarra aurkeztu dezakete, zerga bakoitzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Hidrokarburoen gaineko Zergaren kasuan izan ezik.

Kuota bateratuak banakatzeko aitorpenak –KUBA eta KBBA ereduak– zerga bakoitza ordaintzeko ezarrita dauden epeen barruan aurkeztu behar dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan. Eredu horiekin batera, autoliquidazio bateratuaren kopia bat eta egindako eragiketen aitorpenak ere aurkeztuko dira, banakatu beharreko kuoten fabrikazio zerga berezia zein den adierazita.

Likidatzen den epealdian ez bada izan fabrikazio zerga bereziei atxikitako produktuen izakinik edo mugimendurik, ez da beharrezkoa izango autoliquidaziorik aurkeztea. Orobat, ez da horrelakorik aurkeztu behar Elektrizitatearen gaineko Zergaren likidazio-aldiak zero kuota duenean.

d) Modelo 563: Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas. Autoliquidación, que se adjunta como Anexo IV a la presente Orden Foral.

e) Modelo 564: Impuesto sobre Hidrocarburos. Autoliquidación, que se adjunta como Anexo V a la presente Orden Foral. Este modelo será utilizado con relación a períodos de liquidación anteriores a 2013.

f) Modelo 581: Impuesto sobre Hidrocarburos. Autoliquidación, que se adjunta como Anexo V bis a la presente Orden Foral. Este modelo será utilizado con relación a períodos de liquidación iniciados a partir del 1 de enero de 2013.

g) Modelo 566: Impuesto sobre las Labores del Tabaco. Autoliquidación, que se adjunta como Anexo VI a la presente Orden Foral.

h) Modelo DCC. Impuestos Especiales sobre el Alcohol y Bebidas Alcohólicas, Labores del Tabaco y Electricidad. Declaración de desglose de cuotas centralizadas, que se adjunta como Anexo VII a la presente Orden Foral.

i) Modelo DDC. Impuesto sobre Hidrocarburos. Declaración de desglose de cuotas centralizadas, que se adjunta como Anexo VIII a la presente Orden Foral.

j) Modelo 582: Impuesto sobre Hidrocarburos: Regularización por reexpedición de productos a otro Territorio Histórico o a otra Comunidad Autónoma, que se adjunta como Anexo VIII bis a la presente Orden Foral.

Estos modelos deberán ser presentados por los sujetos pasivos y demás obligados tributarios que resulten obligados al pago de los correspondientes Impuestos Especiales de Fabricación, excepto en el caso de importación y cuando se trate de destiladores artesanales definidos en el artículo 20.6 del Decreto Foral 20/1998, de 3 de marzo, por el que se adapta la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa a lo dispuesto en la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales (en adelante Decreto Foral 20/1998). El modelo 582 sólo deberá ser presentado por aquellos que tengan la condición de reexpedidores de acuerdo con la definición contenida en el artículo 1.13 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio.

La presentación de los modelos, así como el pago simultáneo de las cuotas líquidas, se realizará, con carácter general, por cada uno de los establecimientos o lugares de recepción de los productos indicados en el mismo y objeto de los Impuestos Especiales de fabricación, por las operaciones realizadas en el período de liquidación.

Salvo en el caso del Impuesto sobre Hidrocarburos, podrán presentar una única declaración liquidación, por impuesto, comprensiva de sus actividades, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, aquellas empresas que hayan sido previamente autorizadas por el Servicio de Gestión de Impuestos Indirectos del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Las declaraciones de desglose de cuotas centralizadas, modelos DCC y DDC, se presentarán en el Servicio de Impuestos Indirectos del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa conjuntamente con una copia de la autoliquidación centralizada y las declaraciones de operaciones que proceda, indicando el impuesto especial de fabricación, relativo a las cuotas a desglosar, dentro de los plazos de ingreso establecidos para cada impuesto.

No será necesaria la presentación de las autoliquidaciones cuando no haya habido ni existencias ni movimiento de productos objeto de los impuestos especiales de fabricación en el período de liquidación correspondiente. Tampoco será necesaria esta presentación en el período de liquidación con cuota cero del Impuesto sobre la Electricidad.

582 ereduaren kasuan, ez da autolikidaziorik aurkeztu beharko baldin eta likidatzen den epealdian ez bada inolako berrigorpenik egin beste lurralde historiko batera edo beste autonomia erkidego batera.

Fabrikazio zerga berezien subjektu pasiboak batasunaren gainerako lurralde eremutik iritsitako produktuak jaso edo emateagatik bakarrik baldin badira zergaren subjektu pasiboak, ez dute autolikidaziorik aurkeztu beharko produkturik jaso edo eman ez duten likidazio-aldietan.

Likidazio-aldi batean fabrikazio zerga berezien karga tasa desberdinak aplikatu direnean, karga tasak aplikatu diren epealdi bakoitzeko aurkeztu behar da autolikidazioa eta bakoitzagatik bidezko kuotak ordaindu».

«4. Establezimendu edo harrera leku bakoitzak honako likidazio-aldiak eta honako epeak izango ditu autolikidazioak aurkezteko eta, hala bada, horrekin batera dagozkien kuotak ordaintzeko:

a) Hidrokarburoen eta tabako laboreen gaineko zergak. Likidazio-aldia: Hilabete natural bat.

Epea: Sortzapenak gertatu diren hilabetea amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalak.

582 ereduaren sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu behar da.

b) Alkoholaren eta edari alkoholodunen gaineko zerga.

Likidazio-aldia: Hiruhileko natural bat, non eta subjektu pasiboek, dela eragiketa kopuruaren arabera aitortzen dutelako, dela zergaren araudiak aurreikusten dituen bestelako zirkunstantziak gertatzen direlako, ez duten Balio Erantsiaren gaineko Zerga hilean likidatzen. Horrelakoetan, hilekoa ere izango da zerga horien likidazio-aldia.

Epea: Likidazio-aldia hiruhilekoa bada, sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu ondorengo bigarren hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalak. Likidazio-aldia hilekoa bada, sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu ondorengo hirugarren hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalak.

c) Elektrizitatearen gaineko zerga.

Likidazio-aldia: Hiruhileko natural bat, non eta subjektu pasiboek, dela eragiketa kopuruaren arabera aitortzen dutelako, dela zergaren araudiak aurreikusten dituen bestelako zirkunstantziak gertatzen direlako, ez duten Balio Erantsiaren gaineko Zerga hilean likidatzen. Horrelakoetan, hilekoa ere izango da zerga honen likidazio-aldia.

Epea: Sortzapenak gertatu diren hilabetea edo hiruhilekoa—likidazio-aldia zein den— amaitu ondorengo lehen hogeita bost egun naturalak.

Elektrizitatearen gaineko zergaren subjektu pasiboa ez bada fabrika edo gordailu fiskal baten titularra, kuotak ordaintzeko autolikidazio bakarra aurkeztuko da likidazio-aldi bakoitzeko».

*Bi.* 2. artikularen 1. apartatuko lehen paragrafoa honela berridazten da:

«1. Autolikidazioak osatze aldera, eta aurreko artikuluko 4. apartatuan diru sarrera egiteko aipatu den epearen barruan, subjektu pasiboak behartuta daude egindako eragiketak jasotzen dituzten aitortpenak aurkeztera, baita izakinak bakarrik daudenean ere, foru agindu honetan onartzen diren eredu jarraituta. Honako hauek ez dute eragiketen aitortpenik aurkeztu

En el caso del modelo 582, no será necesaria su presentación cuando en el período de liquidación correspondiente no se hayan realizado reexpediciones a otros Territorios Históricos o a otras Comunidades Autónomas.

En el caso de sujetos pasivos de los Impuestos Especiales de fabricación que lo sean exclusivamente por la recepción o entrega de productos procedentes del ámbito territorial comunitario no interno, no será necesaria la presentación de las autoliquidaciones en aquellos períodos de liquidación, en que no se hayan producido recepciones o entregas.

Cuando a lo largo de un período de liquidación resulten aplicables diferentes tipos de gravamen de los Impuestos Especiales de fabricación, se deberá presentar una autoliquidación e ingresar las cuotas correspondientes por cada período de tiempo en que han sido aplicados los correspondientes tipos de gravamen».

«4. Los períodos de liquidación y los plazos para la presentación de las autoliquidaciones y, en su caso, ingreso simultáneo de las cuotas resultantes serán los siguientes, por cada uno de los establecimientos o lugares de recepción:

a) Impuestos sobre Hidrocarburos y sobre Labores del Tabaco. Período de liquidación: Un mes natural.

Plazo: Los veinticinco primeros días naturales siguientes a aquel en que finaliza el mes en que se han producido los devengos.

El modelo 582 se presentará los veinticinco primeros días naturales siguientes a aquél en que finaliza el trimestre en que se han producido los devengos.

b) Impuestos sobre el alcohol y las bebidas alcohólicas.

Período de liquidación: Un trimestre natural, salvo que se trate de sujetos pasivos cuyo período de liquidación en el ámbito del Impuesto sobre el Valor Añadido fuera, atendiendo a su volumen de operaciones u otras circunstancias previstas en la normativa de dicho impuesto, mensual, en cuyo caso será también mensual el período de liquidación de estos impuestos.

Plazo: Si el período de liquidación es trimestral, los veinticinco primeros días naturales del segundo mes siguiente a aquel en que finaliza el trimestre en que se han producido los devengos. Si el período de liquidación es mensual, los veinticinco primeros días naturales del tercer mes siguiente a aquel en que finaliza el mes en que se han producido los devengos.

c) Impuesto sobre la Electricidad.

Período de liquidación: Un trimestre natural, salvo que se trate de sujetos pasivos cuyo período de liquidación en el ámbito del Impuesto sobre el Valor Añadido sería, atendiendo a su volumen de operaciones u otras circunstancias previstas en la normativa de dicho impuesto, mensual, en cuyo caso será también mensual el período de liquidación de este impuesto.

Plazo: Los veinticinco primeros días naturales siguientes a aquel en que finaliza el mes o el trimestre, según el período de liquidación, en que se han producido los devengos.

Cuando el sujeto pasivo del Impuesto sobre la Electricidad no sea titular de una fábrica o depósito fiscal, el pago de las cuotas se realizará mediante la presentación de una única autoliquidación por cada período de liquidación».

*Dos.* El primer párrafo del apartado 1 del artículo 2 queda redactado en los siguientes términos:

«1. Como complemento a las autoliquidaciones, los sujetos pasivos, dentro del plazo para el ingreso establecido en el apartado 4 del artículo anterior están obligados a presentar las declaraciones que comprendan las operaciones realizadas, incluso cuando sólo tengan existencias, de acuerdo con los modelos aprobados en la presente Orden Foral. No será exigi-

beharko: Berrigorle gisa jarduten duten subjektu pasiboek, betiere izaera hori badute zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 1.13 artikuluan jasotako definizioaren arabera, eta zerga berezietan buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeak 8. artikuluan 3. apartatuko lehen paragrafoan ezarritakoa aintzat hartuta, zergadunaren ordezkari gisa jarduten duten subjektu pasiboek.

Aurrekoa hala izanik ere, Ardoaren eta Edari Hartzituen gaineko Zergan aplikatzen den zerga tasa zero den bitartean, zergari atxikitako produktuak fabrikatzen dituztenek eta produktu horien gordailu fiskalen titularrek urtarril, apiril, uztail eta urriaren lehen hogeita bost egunen barruan aurkeztu behar dute, bulego kudeatzailean, eragiketen aitortpena, eta bertan aurreko hiruhileko naturalean establezimenduan izandako mugimenduak adierazi».

*Hiru.* Honela geratzen da idatzita 3. artikuluan 2. apartatuko f) letra:

«f) 590 ereduak aurkeztu behar da zerga berezien erregelamendua onartzen duen uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak 7. eta 57.4 artikuluetan aipatzen dituen kasuetan. Merkantiak esportatzeko tramitearen aduanako agiria aurkeztu eta berehala aurkeztu behar da eskaera».

*Lau.* 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako aitortpenaldietarako, Tabako Laboreen gaineko Zerga autoliquidatzeko 566 ereduari dagokion VI. eranskinean, beste testu bat hartu behar da kontuan «Likidazioa» atalaren barruan «Epigrafea» betetzeko jarraibideetan, honako hau:

«Epigrafea: Azaroaren 20ko EHA/3482/2007 Aginduaren XLIV. eranskineko epigrafeak jarri behar dira».

*Bigarrena:* Onarturik geratzen da V bis eranskin berria, Hidrokarburoen gaineko Zerga autoliquidatzeko 581 ereduari dagokiona. Foru agindu honetan I. eranskin gisa jasotzen da.

*Hirugarrena.* Onarturik geratzen da VIII bis eranskin berria, 582 ereduarena: «Hidrokarburoen gaineko Zerga: Produktuak beste lurralde historiko batera edo beste autonomia erkidego batera berrigortzeagatik egin beharreko erregularizazioa». Foru agindu honetan II. eranskin gisa ageri da.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Abenduaren 27ko 16/2012 Legeak, finantza publikoak indartzeko eta jarduera ekonomikoa sustatzeko zerga-neurri batzuk egokitzen dituenak, lehen xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, zergaren eremu objektiboan sartutako produktuen txikizkako salmentak 2012ko abenduaren 31tik aurrera egindakotzat joko dira baldin eta data horretan produktuak jendearentzako txikizkako saltokietan badaude –Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmenten gaineko Zergari buruzko martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauaren 4. artikuluko 2. zenbakian definitutakoetan–, salbu eta aipatutako produktuei hidrokarburoen gaineko zergaren etendura araubidea aplikagarri bazaie.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, produktuen txikizkako salmentak publikoarentzako txikizkako saltoa zein lurraldetan dagoen kokatuta, eta han joko dira egindakotzat beti.

2013ko apirilko lehen 25 egun naturaletan, zergaren subjektu pasiboak behartuta daude aurreko paragrafoetatik ondorioztatzen den autoliquidazioa eta sorrarazitako kuoten zerrenda aurkeztera, baita, salbuetsitako eragiketena ere, hala-korik bada. Autoliquidazio hori 2012ko azken hiruhilekoko autoliquidaziotik bereiz izapidetuko da.

ble la declaración de operaciones a aquellos que tengan la condición de reexpedidores de acuerdo con la definición contenida en el artículo 1.13 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio, ni a quienes tengan la condición de sujeto pasivo en calidad de sustitutos del contribuyente, de acuerdo con lo previsto por el párrafo segundo del apartado 3 del artículo 8 de la Ley 38/1992, de 28 de diciembre, de Impuestos Especiales.

No obstante lo anterior, mientras el tipo impositivo del Impuesto sobre el Vino y Bebidas Fermentadas sea cero, los fabricantes y titulares de depósitos fiscales de productos objeto de este Impuesto presentarán la declaración de operaciones, correspondiente al movimiento habido en el establecimiento durante el trimestre natural inmediatamente anterior, ante la oficina gestora y dentro de los veinticinco primeros días de los meses de enero, abril, julio y octubre».

*Tres.* La letra f) del apartado 2 del artículo 3 queda redactada en los siguientes términos:

«f) El modelo 590 deberá presentarse en los supuestos previstos en los artículos 7 y 57.4 del Reglamento de los Impuestos Especiales, aprobado por el Real Decreto 1165/1995, de 7 de julio. La solicitud se presentará inmediatamente después de la presentación del documento aduanero para el despacho de exportación de las mercancías».

*Cuatro.* Para los períodos de declaración iniciados a partir del 1 de enero de 2013, en el anexo VI «Modelo 566 Impuesto sobre las Labores del Tabaco. Autoliquidación», el texto de las instrucciones relativo al «Epígrafe», en el apartado «Liquidación», se sustituye por el siguiente:

«Epígrafe: Los epígrafes que deben consignarse son los que figuran en el Anexo XLIV de la Orden EHA/3482/2007, de 20 de noviembre».

*Segundo:* Se aprueba el nuevo anexo V bis, modelo 581, «Impuesto sobre Hidrocarburos: Autoliquidación», que se adjunta como Anexo I a la presente Orden Foral.

*Tercero.* Se aprueba el nuevo anexo VIII bis, modelo 582, «Impuesto sobre Hidrocarburos: Regularización por reexpedición de productos a otros Territorios Históricos o a otras Comunidades Autónomas», que se adjunta como Anexo II a la presente Orden Foral.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

De conformidad con lo dispuesto en la disposición adicional primera de la Ley 16/2012, de 27 de diciembre, por la que se adaptan diversas medidas tributarias dirigidas a la consolidación de las finanzas públicas y al impulso de la actividad económica, se consideran realizadas a 31 de diciembre de 2012 las ventas minoristas de los productos comprendidos en el ámbito objetivo del impuesto que a dicha fecha se encuentren en los establecimientos de venta al público al por menor definidos en el número dos del artículo 4 de la Norma Foral 2/2002, de 20 de marzo, del Impuesto sobre las Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, salvo que a los citados productos les sea de aplicación el régimen suspensivo del Impuesto sobre Hidrocarburos.

A efectos de lo dispuesto en el párrafo anterior las ventas minoristas de los productos se entenderán efectuadas en todo caso en el territorio donde radique el establecimiento de venta al público al por menor.

En los 25 primeros días naturales del mes de abril de 2013 los sujetos pasivos del Impuesto estarán obligados a presentar la autoliquidación y relación comprensiva de las cuotas devengadas, y en su caso, de las operaciones exentas, derivada de lo señalado en los párrafos anteriores, que se tramitará de forma independiente de la correspondiente autoliquidación del último trimestre del año 2012.

## AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2013ko otsailaren 7a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.

(1468)

(1503)

## DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden Foral entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 7 de febrero de 2013.—La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.

(1468)

(1503)

 <b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b> <b>Diputación Foral de Gipuzkoa</b> Ogasun eta Finantza Departamentua Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.net/ogasuna  *8400051212013*	<b>HIDROKARBURUEN GAINEKO ZERGA</b> <b>IMPUESTO SOBRE HIDROCARBUROS</b>  <i>Aitorpen-likidazioa</i> Declaración-liquidación	581
--	---	-----

*Aitorpen-likidazioa / Declaración-liquidación*

<b>Identifikazioa</b> Identificación	IFZ NIF	JEK edo JBK CAE o CAR	<b>Sortzapena</b> Devengo	Ekit. / Ej.	<input type="text"/>
	Deiturak eta izena, edo sozietate izena Apellidos y nombre o razón social			Zergaldia / Período	<input type="text"/>
	Entregak egin diren Administrazio Eskuduna Administración Competente donde se han realizado las entregas				

Epigrafea Epigrafe	Oinarri ezgarria Base imponible	Zerga tasa Tipo impositivo	Kuota osoa Cuota íntegra	Kuotako kenkariak / Deducciones de la cuota	
				Kontzeptua Concepto	Kuota kengarria Cuota deducible
<b>GUZTIRA:</b> <b>TOTAL:</b>					

Ordaintzeko kuota likidoa / Cuota líquida a ingresar:

Data Fecha	Sujektu pasiboaren sinadura Firma del sujeto pasivo
---------------	--

<b>Ordainagiria</b> Justificante de Ingreso	Ordainketa gutuna / Carta de pago		
Zigilua eta sinadura / Sello y firma	Entitatearen gakoa / Clave entidad	Data / Fecha	Zenbatekoa / Importe

Administrazioaren Alea / Ejemplar para la Administración

 <p><b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b> Diputación Foral de Gipuzkoa Ogasun eta Finantza Departamentua Departamento de Hacienda y Finanzas www.gipuzkoa.net/ogasuna</p> <p>*8400051212013*</p>	<p><b>HIDROKARBUROEN GAINEKO ZERGA</b> <b>IMPUESTO SOBRE HIDROCARBUROS</b></p> <p><i>Aitorpen-likidazioa</i> Declaración-liquidación</p>	<p>581</p>
---	--	------------

*Aitorpen-likidazioa / Declaración-liquidación*

<b>Identifikazioa</b> Identificación	IFZ NIF	JEK edo JBK CAE o CAR	<b>Sortzapena</b> Devengo	Ekit. / Ej. <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/> <input type="text"/>	
	Deiturak eta izena, edo sozietate izena Apellidos y nombre o razón social			Zergaldia / Período <input type="text"/> <input type="text"/>	
	Entregak egin diren Administrazio Eskuduna Administración Competente donde se han realizado las entregas				

Epigrafea Epígrafe	Oinarri ezargarria Base imponible	Zerga tasa Tipo impositivo	Kuota osoa Cuota íntegra	Kuotako kenkariak / Deducciones de la cuota	
				Kontzeptua Concepto	Kuota kengarria Cuota deducible
<b>GUZTIRA:</b>					
<b>TOTAL:</b>					

*Ordaintzeko kuota likidoa / Cuota líquida a ingresar:*

Data Fecha .....	Sujektu pasiboaren sinadura Firma del sujeto pasivo
---------------------	--

<b>Ordainagiria</b> Justificante de Ingreso	<p><i>Ordainketa gutuna / Carta de pago</i></p> <p>Zigilua eta sinadura / Sello y firma      Entitatearen gakoa / Clave entidad      Data / Fecha      Zenbatekoa / Importe</p>
--	---

Aitorzailearen Alea / Ejemplar para el interesado

## 581 eredu batzuetarako jarraibideak / Instrucciones para cumplimentar el modelo 581

581 eredu bat aurkeztu beharko da, zergaldiaren barruan estatuko tasa berezian kargatutako produktuetarako zerga sortu den autonomia erkidego edo foru lurralde bakoitzeko.

Estatuko tasa berezian kargatu gabeko produktuak ez daude berezita autonomia erkidego edo foru lurraldearen arabera.

### A. GOIBURUKO DATUAK

#### Entregak egin diren lurraldeko administrazio eskuduna

Administrazio eskudunaren eremua bete behar da aitortpen-likidazioan estatuko tasa berezian kargatutako produktuen bat jasota dagoen guztietan. Aitortpen-likidazioan jasotako produktuengatik zergaren sortzapena gertatu den autonomia erkidegoa edo foru lurraldea adierazi behar da, taula honen arabera:

Andaluzia / Andalucía	01	Aragoi / Aragón	02	Asturiasko Printzerria / Principado de Asturias	03
Balear Uharteak / Illes Balears	04	Kantabria / Cantabria	06	Gaztela-Mantxa / Castilla -La Mancha	07
Gaztela eta Leon / Castilla y León	08	Katalunia / Cataluña	09	Extremadura / Extremadura	10
Galizia / Galicia	11	Madril / Madrid	12	Murtzia / Murcia	13
Nafarroako Foru Aldundia / Diputación Foral de Navarra	14	Errioxa / La Rioja	16	Valentziako Komunitatea / Comunidad Valenciana	17
Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Alava	20	Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa	21	Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación foral de Bizkaia	22

### Identifikazioa

IFZ eremuan, zergapekoaren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.

JEK edo JBK kodearen eremua beti bete behar da. Jarduera eta establezimendu kodea (JEK) jarri behar da eta, aitortpen-likidazioaren jatorria 505 ereduko baimen bat bada, produktuak jasotzeko baimen kodea (JBK) jarriko da.

### Sortzapena

#### Ekitaldia:

Aitortzen den zergaldiaren urteko lau zifrak jarri behar dira.

#### Zergaldia:

Honako taula honen arabera:

01 Urtarrila 02 Otsaila 03 Martxo 04 Apirila 05 Maiatza 06 Ekaina 07 Uztaila 08 Abuztua 09 Iraila 10 Urria 11 Azaroa 12 Abendua

### B. KUOTEN LIKIDAZIOA ETA BANAKAPENA

**Epigrafe:** 2007ko azaroaren 20ko EHA/3482/2007 Aginduren XLIV. eranskinean jasotako epigrafeak adieraziko dira.

**Oinarri ezargarria:** oinarri ezargarriak izango dira estatuko tasa berezian kargatutako produktuen kasuan likidazio aldiari eta autonomia erkidegoari edo foru lurraldeari dagozkion oinarri ezargarriak. Epigrafe bakoitzari dagokion unitatean adierazi behar dira kopuruak. Bi zenbaki hamartar jarri behar dira, behetik edo goitik biribilduta, kontuan hartuta hirugarren zenbaki hamartarra 5 baino txikiagoa den edo ez.

**Zerga tasa:** epigrafe bakoitzerako adierazi beharko da zerga sortzen denean aplikagarriak diren zerga tasen batura (estatuko orokorra, estatuko berezia eta, hala badagokio, autonomikoa).

**Kuota osoa:** zerga tasa epigrafe bakoitzari dagokion oinarri ezargarriaren gainean aplikatuz ateratzen den emaitza jarri behar da, eurotan, bi zenbaki hamartar adierazita.

**Kuotaren kenkariak. Kontzeptua:** subjektu pasiboak zerga berezian araudian jasotako kuotako kenkariak egiten dituztenean bete behar da. Kenkaria zer kontzeptutan egiten den zehaztu behar da, honakoei jarraituz:

- 1.-proiektu aitzindariak (biokarburanteak);
- 2.-produktu kutsatuak;
- 3.-hurrumen berreskurapena;
- 4.-beste kenkari batzuk.

**Kuotaren kenkariak. Kuota kengarria:** JEK kodeari dagokion epigrafe eta kontzeptu bakoitzeko adierazi behar da kuota kengarria, eurotan eta bi zenbaki hamartar adierazita.

**Kuota osoa, guztira:** aitortpen-likidazioan jarritako epigrafeei dagozkien kuota osoen batura adierazi behar da.

**Kuotaren kenkariak, guztira:** kuota kengarrien batura jarri behar da epigrafe eta kontzeptu bakoitzeko.

**Ordaintzeko kuota likidoa:** “kuota osoa, guztira” eta “kuotaren kenkariak, guztira” laukietan jarritakoen arteko diferentzia izango da.

Se deberá presentar un modelo 581 por cada Comunidad Autónoma o Territorio Foral donde se hayan producido en el período devengos del impuesto para productos gravados con tipo estatal especial.

Los productos no gravados con tipo estatal especial no serán diferenciados por Comunidad Autónoma o Territorio Foral.

### A. DATOS DE CABECERA

#### Administración Competente donde se han realizado las entregas

El campo Administración Competente debe cumplimentarse siempre que exista en la declaración-liquidación algún producto gravado con tipo estatal especial. Se indicará la Comunidad Autónoma o Territorio Foral donde se haya producido el correspondiente devengo del impuesto por los productos incluidos en la declaración-liquidación, según la siguiente tabla:

### Identificación

El campo NIF debe cumplimentarse con el número de identificación fiscal del obligado tributario.

El campo CAE o CAR debe cumplimentarse siempre. Se hará constar el Código de Actividad y Establecimiento (CAE) y si la declaración-liquidación tiene su origen en una autorización modelo 505 se consignará el (CAR).

### Devengo

#### Ejercicio:

Deberán consignarse las cuatro cifras del año al que corresponde el período por el que se efectúa la declaración.

#### Período:

Según la tabla siguiente:

01 Enero 02 Febrero 03 Marzo 04 Abril 05 Mayo 06 Junio 07 Julio 08 Agosto 09 Septiembre 10 Octubre 11 Noviembre 12 Diciembre

### B. LIQUIDACIÓN Y DESGLOSE DE CUOTAS

**Epigrafe:** se indicarán los epígrafes establecidos en el anexo XLIV de la Orden EHA/3482/2007, de 20 de noviembre.

**Base imponible:** las bases imponibles serán las correspondientes al período de liquidación. Se expresarán en la unidad correspondiente a cada epígrafe, con dos cifras decimales, redondeando por defecto o exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5.

**Tipo impositivo:** deberá indicarse para cada epígrafe la suma de los tipos impositivos aplicables (estatal general, estatal especial y autonómico, en su caso) en el momento de devengo del impuesto.

**Cuota íntegra:** se indicará el resultado de aplicar el tipo impositivo sobre la base imponible correspondiente a cada epígrafe, en euros con dos decimales.

**Deducciones de la cuota. Concepto:** se cumplimentará cuando el sujeto pasivo se aplique las deducciones de cuota previstas en la normativa de impuestos especiales. Se indicará el concepto por el que se realiza la deducción, de entre los siguientes:

- 1.-Proyectos piloto (biocarburantes)
- 2.- Productos contaminados
- 3.- Recuperación vapores
- 4.-Otras deducciones

**Deducciones de la cuota. Cuota deducible:** se indicará la cuota deducible por cada uno de los epígrafes y conceptos correspondientes al CAE, en euros con dos decimales.

**Cuota íntegra total:** se indicará la suma de las cuotas íntegras correspondientes a los epígrafes consignados en la declaración-liquidación.

**Total deducciones de la cuota:** deberá indicarse la suma de las cuotas deducibles.

**Cuota líquida a ingresar:** será la diferencia entre lo consignado en las casillas “cuota íntegra total” y “total deducciones de la cuota”.







**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
 Diputación Foral de Gipuzkoa  
 Ogasun eta Finantza Departamentua  
 Departamento de Hacienda y Finanzas  
 www.gipuzkoa.net/ogasuna

**HIDROKARBUROEN GAINEKO ZERGA**  
**IMPUESTO SOBRE HIDROCARBUROS**  
*Aitorpen-likidazioa*  
 Declaración-liquidación

582

\*8400051222013\*

<b>Berrigorlearen identifikazioa</b> Identificación reexpedidor	IFZ NIF	JEK kodea CAE	<i>Deiturak eta izena, edo sozietate izena</i> Apellidos y nombre o razón social
		<i>Sortapena</i> Devenago	<i>Ekitaldia / Ejercicio</i> <input type="text"/>
			<i>Zergaldia / Período</i> <input type="text"/>

**Likidazioa / Liquidación**

Epigrafia Epigrafe	Oinarri ezarpena Base imponible	Sortua / Devengado Zerga tasa / Tipo impositivo	Berritzailea / Reexpedito Zerga tasa / Tipo impositivo	Zerga tasen arteko diferentzia Diferencia de tipos	Kuota osoa Cuota íntegra
			Adm. eskad. / Adm. comp.		

Ordaintzeko zenbatekoa Importe a ingresar	<input style="width: 95%;" type="text"/>	Kuota osoa, guztira Total cuota íntegra	<input style="width: 95%;" type="text"/>
--	--	--	--

Data  
Fecha .....

Aitorzailearen sinadura / Firma del declarante

**Bete bakarrik emaitza itzultzeko denean**  
 Rellenar únicamente en los casos en los que resultado sea a devolver

<i>Entitatea / Entidad</i>	<i>Bezero kontuaren kodea (BKK) / Código cuenta cliente (CCC):</i>
<input style="width: 100%;" type="text"/>	<input style="width: 100%;" type="text"/>
<i>Bulegoa / Oficina</i>	<i>Kontu zenbakia / Núm. de cuenta</i>
<input style="width: 100%;" type="text"/>	<input style="width: 100%;" type="text"/>

<i>Ordainagaria</i> Justificante de Ingreso	<i>Ordainketa gutuna / Carta de pago</i>	<i>Entitatearen gako / Clave entidad</i>	<i>Data / Fecha</i>	<i>Zenbatekoa / Importe</i>
--	--	--	---------------------	-----------------------------

## 582 eredu batzuetarako jarraibideak / Instrucciones para cumplimentar el modelo 582

582 eredu bakar bat aurkeztu behar da, hiruhileko natural bakoitzeko eta estatuko tasa berezi batean kargatutako produktuak beste autonomia erkidego batera edo batzuetara berriro igortzen dituen establezimendu bakoitzeko.

### A. GOIBURUKO DATUAK

#### Identifikazioa

Berrigorlearen identifikazio fiskaleko zenbakia eta zergaldiko berrigorpenak egiteko erabiltzen den establezimenduaren jarduera eta establezimendu kodea (JEK) jarri behar dira.

#### Entregak egin diren lurraldeko administrazio eskuduna

Zergaldiko produktuak berriro igortzeko erabili den establezimenduar-en autonomia erkidegoa edo foru lurraldea jarri behar da, taula honen arabera:

Andaluzia / Andalucía	01	Aragoi / Aragón	02	Asturiansko Printzerria / Principado de Asturias	03
Balear Uharteak / Illes Balears	04	Kantabria / Cantabria	06	Gaztela-Mantxa / Castilla-La Mancha	07
Gaztela eta Leon / Castilla y León	08	Katalunia / Cataluña	09	Extremadura / Extremadura	10
Galizia / Galicia	11	Madril / Madrid	12	Murtzia / Murcia	13
Nafarroako Foru Aldundia / Diputación Foral de Navarra	14	Errioxa / La Rioja	16	Valentziako Komunitatea / Comunidad Valenciana	17
Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Alava	20	Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa	21	Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación foral de Bizkaia	22

#### Sortzapena

##### Ekitaldia:

Aitortzen den zergaldiaren urteko lau zifrak jarri behar dira.

##### Zergaldia:

Honako taula honen arabera:

1H: lehen hiruhilekoa 2H: bigarren hiruhilekoa  
3H: hirugarren hiruhilekoa 4H: laugarren hiruhilekoa

### B. LIKIDAZIOA

**Epigrafe:** 2007ko azaroaren 20ko EHA/3482/2007 Aginduaren XLIV. eranskinean jasotako epigrafeak adieraziko dira. Estatuko tasa berezi batean kargatutako produktuak agertu behar dira bakarrik.

**Oinarri ezargarria:** oinarri ezargarriak izango dira epigrafe bakoitzeko eta autonomia erkidego edo foru lurralde bakoitzeko likidazio-aldiari dagozkion oinarri ezargarriak. Epigrafe bakoitzari dagozkion unitatean adierazi behar dira kopuruak. Bi zenbaki hamartar jarri behar dira, behetik edo goitik biribilduta, kontuan hartuta hirugarren zenbaki hamartarra 5 baino txikiagoa den edo ez.

**Sortua. Zerga tasa.** Dena delako epigrafeari eta establezimenduaren autonomia erkidegoari edo foru lurraldeari dagokien zerga tasa autonomikoaren zenbatekoa jarri behar da.

**Berriro igorria. Administrazio eskuduna.** Hemen jarriko da zer autonomia erkidego edo foru lurraldetara berriro igorri diren zergaldiaren barruan epigrafe bakoitzeko produktuak.

**Berriro igorria. Zerga tasa.** Hemen jarriko da zer zerga tasa autonomiko dagokien epigrafeari eta produktuen berrigorpena jaso duen autonomia erkidego edo foru lurraldeari.

**Tasa diferentzia.** Berrigorpenaren zerga tasari sortutako zerga tasa kenduz ateratzen den emaitza izango da.

**Kuota osoa.** Oinarri ezargarriari autonomia erkidego edo foru lurraldeko zerga tasa aplikatuz ateratzen diren zenbatekoen eta produktuak berriro igortzeko erabilitako autonomia erkidego edo foru lurralde bakoitzeko zerga tasaren arteko kenketaren emaitza globala izango da.

**Kuota osoa, guztira.** Aitorpen-likidazioan jarritako epigrafeei dagozkien kuota osoen batura adierazi behar da.

**Ordaindu beharreko zenbatekoa.** Kuota osoa positiboa denean jarri behar da.

**Itzuli beharreko zenbatekoa.** Kuota osoa negatiboa denean jarri behar da.

Se presentará un único modelo 582 por trimestre natural y establecimiento desde donde se reexpidan productos gravados con un tipo estatal especial a otra u otras Comunidades Autónomas.

### A. DATOS DE CABECERA

#### Identificación

Se consignará el número de identificación fiscal del reexpedidor y el CAE del establecimiento desde el que se realizan las reexpediciones del período.

#### Administración Competente donde se han realizado las entregas

Se consignará la Comunidad Autónoma o Territorio Foral donde se encuentre ubicado el establecimiento desde donde se han reexpedido los productos en el período considerado, según la siguiente tabla:

#### Devengo

##### Ejercicio:

Deberán consignarse las cuatro cifras del año al que corresponde el período por el que se efectúa la declaración.

##### Período:

Según la tabla siguiente:

1T: Primer trimestre 2T: Segundo trimestre  
3T: Tercer trimestre 4T: Cuarto trimestre

### B. LIQUIDACIÓN

**Epígrafe:** se indicarán los epígrafes establecidos en el anexo XLIV de la Orden EHA/3482/2007, de 20 de noviembre. Únicamente han de figurar productos gravados con un tipo estatal especial.

**Base imponible:** las bases imponibles serán las correspondientes al período de liquidación para cada epígrafe y Comunidad Autónoma o Territorio Foral de destino. Se expresarán en la unidad correspondiente a cada epígrafe, con dos cifras decimales, redondeando por defecto o exceso, según que la tercera cifra decimal sea o no inferior a 5.

**Devengado. Tipo impositivo.** Se consignará el importe del tipo impositivo autonómico correspondiente al epígrafe de que se trate y a la Comunidad Autónoma o Territorio Foral donde se encuentre ubicado el establecimiento.

**Reexpedido. Administración Competente.** Se consignará cada Comunidad Autónoma o Territorio Foral a la que han sido reexpedidos en el período los productos contemplados en cada epígrafe.

**Reexpedido. Tipo impositivo.** Se consignará el tipo impositivo autonómico correspondiente al epígrafe y Comunidad Autónoma o Territorio Foral donde los productos han sido reexpedidos.

**Diferencia de tipos.** Será la diferencia resultante del tipo impositivo reexpedido menos el tipo impositivo devengado.

**Cuota íntegra.** Se consignará el resultado global de las diferencias entre los importes resultantes de aplicar sobre la base imponible el tipo impositivo de la Comunidad Autónoma o Territorio Foral del establecimiento y el tipo impositivo de cada correspondiente Comunidad Autónoma o Territorio Foral donde los productos han sido reexpedidos, en euros con dos decimales.

**Total cuota íntegra.** Se indicará la suma de las cuotas íntegras correspondientes a los epígrafes consignados en la declaración-liquidación.

**Importe a ingresar.** Se consignará en el caso de que cuota íntegra sea positiva.

**Importe a devolver.** Se consignará en el caso de que la cuota íntegra sea negativa.